

Ikusmen urritasuna

Autor: Zabaleta Arangoa, Nerea (Maestra. Especialidad en Educación Infantil y Primaria., Profesora de Educación Infantil).

Público: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. **Materia:** Educación. **Idioma:** Español.

Título: Ikusmen urritasuna.

Resumen

Artikulo hau ikusmen urritasunaren inguruan idatzita dago. Bertan atentzio goiztiarra azpimarratzen da. Ikusmen urritasuna duten haurrek ikasketa arloan zein garapena duten zehazten da. Umea eskolara iristen denean hainbat gauza ezberdin nabarmenduko ditu: toki berria, ez duela zerikusirik familiakoarekin, sentrazio berriak, konturatuko da ez dela erdigunea izanen baizik eta beste bat gehiago dela. Askotan gurasoen babesa gehiegizkoa izaten da. Hasiera batean gauza hauek ez du erakarriko haurra. Horretarako kontutan hartu beharko dira hainbat kontzeptu: Garrantzitsua da nola tratatuko den azaltzea eta baita gomendio batzuk kontutan hartzea ere.

Palabras clave: Ikusmen urritasuna.

Title: Ikusmen urritasuna.

Abstract

Artikulo hau ikusmen urritasunaren inguruan idatzita dago. Bertan atentzio goiztiarra azpimarratzen da. Ikusmen urritasuna duten haurrek ikasketa arloan zein garapena duten zehazten da. Umea eskolara iristen denean hainbat gauza ezberdin nabarmenduko ditu: toki berria, ez duela zerikusirik familiakoarekin, sentrazio berriak, konturatuko da ez dela erdigunea izanen baizik eta beste bat gehiago dela. Askotan gurasoen babesa gehiegizkoa izaten da. Hasiera batean gauza hauek ez du erakarriko haurra. Horretarako kontutan hartu beharko dira hainbat kontzeptu: Garrantzitsua da nola tratatuko den azaltzea eta baita gomendio batzuk kontutan hartzea ere.

Keywords: Ikusmen urritasuna.

Recibido 2017-09-14; Aceptado 2017-09-22; Publicado 2017-10-25; Código PD: 088052

1.- HISTORIA

1871tik aurrera eskola publikoetan umeitsuak integratu ziren. Umeak gero eta arazo gehiago eduki ezkeror, orduan eta aldaketa gehiago egin beharko dira haur hori hobekiago egokitzeke.

Irakasleak curriculum orokor bat egin beharko du ume guztientzako eta ez bi curriculum umeen artean ezberdintasunik ez dadin egon.

Ikusmen urritasunak, errendimendu akademikoan zerikusia dauka. Eguneroko gauzak egitea zail egiten zaio.

Nahiz eta ikusmen urritasuna izan, beste sentiduak hobekiago garatzen dituzte pertsona arrunt bat baino.

Haur honek eskolan hainbat gauza ikasiko ditu. Hala nola: janzteia, jatea, garbitasuna... Ume hauei, autonomiaz jokatzeko utzi behar zaie konfiantza hartu ahal izateko. Askotan, gurasoek eta irakasleek laguntzeagatik, dena egiten diete umeari baina hori ez da egokia; saiatzeko eskubidea daukate nahiz eta gaizki egin.

Ikusmen urritasuna daukanak, kapazitate gutxiago daukate aurreratzeko gertatuko diren egoeratarara, arriskuak ikusteko eta aurre egiteko. Horretarako, mapa mental bat egin behar du inguruaren eta bere inguru horretan erlazionatutako gauzei buruz. Garrantzitsua da ingurune horretan mugitzea objektuz objektu modu organizatu batean.

Lehendabiziko urteetan kontzeptu hauei ematen diote garrantzia: barruan/ kanpoan, aurrean/atzean, azkar/ mantso, trafiko mugimenduak, igogailuak, igo eta jaitsi eskailerak... Hauen bidez, seguritatearekin jokatu du bai ingurune ezagunetan eta bai ezezagunetan.

Eskolako materiala eta irakurketa Braille metodoaren bidez egiten da. Nahiz eta irakurketa mantsoa izan, sistema errazena da irakurtzeko eta idazteko. Gaur egun, aukera bat da ordenagailu bidez egiteko.

Beste modu bat ukimenezko irakurketa "optacon"-ia izan daiteke. Hau eskaner baten bidez erabiltzen da eta modu azkarrena da.

Haur hauek gizarteari begira, egozentrikoagoak eta heldugabeak dira. Bere urritasunak, asko zailtzen du beste pertsona baten ikuspuntua sumatzea. Askotan arraro sentitzen dira besteekiko.

2.-ATENTZIO GOIZTIARRA

Atentzio goiztiarra haurraren lehenengo hiru urteetan erabiliko diren hezkuntza interbentzio era zehatz batzuk dira.

Gutxitasunen bat duten haurren kasuan beraien jaiotzatik edo gutxienez lehenengo hilabetetatik aurrera atentzio goiztiarraren helburu nagusia ahalik eta garapen ebolutibo normalena bideratzea izango da. Honetarako oso garrantzitsua da gutxitasun bakoitzaren zailtasunak ondo ezagutzea, horregatik oso garrantzitsua haurraren ikusmen gutxitasunak detektatzea.

Haurra mundua ikusmenik gabe edo ikusteko zailtasun handi batekin iristen denean, gurasoengan estatusun egoera sortzen da. Lehenengo hilabete hauetan beraien haurrarekin zer gertatuko den jakin nahiko dute, nola tratatu eta zer behar duen egokien garatzeko. Haur itsuak ikusten dute hurrekiko garapen paralelo bat dute. Ikusmen gutxitasun bat duten haurren hezkuntzari aurre egiteko oinarritzko ideia batzuk hartzen ditugu:

1.- Gorputzak beste hainbat bide sentsorial ditu (usaimena, ikusmena eta entzumena) eta hauek ondo estimulatzen badira maila handi batean ikusmen falta konpentsa dezakete, eta neurri handi batean garapen ebolutibo orokorra ez da serioski aldatzen.

2.- Ikusmen gutxitasunik ez duen haurraren garapen ebolutiboa ezagutu behar da, zailtasun hauek dituen haurrak hainbat ikaskuntza egiteko izango dituen zailtasunak errazago ulertzeko.

3.- Ikusmen gutxitasunari buruz eta diagnostiko oftalmologikoari buruz ahalik eta gehien ezagutu behar da, jatorria, eboluzioa eta pronostikoa. Oso garrantzitsua da jakitea haurrak ikusmen arrastorik baduen ala ez eta elkarloturiko beste defizientziarik baduen ala ez.

4.- Haur itsuaren eta ikusmen arrastoa duen haurren garapena ez da berdina izango. Hau oso garrantzitsua da atentzio goiztiarreko programaren ekintzak zehazteko garaian.

5.- Haurraren ikusmen arrastoa landu behar da hau oso txikia izan harren ikusteko gaitasuna ez bait da berezkoa edo automatikoa, erabiliaz garatzen den gaitasuna bait da.

6.- Nahitaezko estimulurik jasotzen ez duen haur itsu bat pasiboagoa da, ezin bait ditu ikusmen estimuluak antzeman eta ezin ditu inguruko objektuak eskuratu; honegatik bere entzumen eta ikusmen gaitasunak garatu beharko ditu apendizai bidez.

7.- Lehenengo momentuetatik lengoia oinarritzko informazio bidea da haur itsuarentzat, inguruko medioarekin kontaktuan jartzen duena baita.

3.- IKUSMEN ESTIMULAZIOA. IKUSTEN IKASI.

Urte askotan zehar ikusmen gutxitasun larriak zituzten pertsonak itsuak baziren bezala tratatu behar zirela uste zen, beraien ikusmen potentziala kontutan izan gabe, honela desegokitzeak eta jarrera negatiboak sortzen ziren beraiengan. Baieztapen honen oinarrian ikusmena aurreztu egin behar zela zegoen, erabilpenak begi gaixotasunaren prozesua azkartuko zuenaren uste bait zen. Gaur egun erakutsi da era zientifiko batez haur edo helduaren ikusmen arrastoa ahalik eta gehien erabili behar dela. Honegatik **estimulazio egoki eta pausokatu bat** beharrezkoa da **ikusmen efizientzia hobetzen** joateko.

Ikusmen estimulazioko programak diseinatuak daude ikusmen gaixotasun larriak dituzten haurrei erakusteko ikusten dutenari zentzua ematen eta pertzibitzen dituzten sentsazioak interpretatzeko.

Ikusmen normala duen haur baten ikusmen gaitasunaren garapena, garapen normal hori oztopatua duten subjektuengan prestakuntza espezifikoa bat egitea beharrezkoa da.

Ikusmen funtzionamenduaren garapenean kontutan izan beharrekoak:

1.- Ikusmen gaitasunaren garapena ez da berezkoa ezta automatikoa ere.

2.- Ikusmen gaitasuna ez dator ikusmen zorroztasunarengatik zehaztua ezta gaitz mota edo mailarekin erlazionatzen ere.

3.- Ikusmen gaitasuna ikusmen esperientzi mailakatuko programen bidez garatu daiteke.

4.-DIAGNOSTIKOA/DIAGNOSIA

Ikusmen urritasuna duten haurren garapena ikasketa arloan:

Ume txiki bat itsu jaiotzen denean, amarekiko erlazio txarra eta desegokiago izaten du. Beraien arteko konplizitatea eta erlazioan eragina dauka. Haur horrek, ez du kontrolatzen bere ingurua eta frustrazio puntu bat ematen da. Hizkuntzan ere arazoak ematen dira, ez duelako ulertzen hitzen esanahia. Horretarako, ikaskuntza beharrezkoa eta kalitate handikoa izan behar du bere beharrak betetzeko .

0-2 urte

Familia izan behar du garai horretan garrantzitsuena. Objektuen bidez laguntzen badiote, orduan kognitiboki azkarrago joanen da eta pertzepzioa landuko du. Ikusten ez duenez, beste sentiduei garrantzia eman behar zaio falta zaion hori besteen bidez osatzeko eta gehiago garatzeko.

Ume hauek nahiko lasaia izaten dira, ez dute gauzekiko kuriositerik, ez baitute munduan dauden estimuluen berri, hots, munduan dagoena eta kanpoan dagoena ikusteko zailtasunak dituzte. Konplexuak sortzen zaizkie; inkomunikazioa eta bestenganako interes falta sortzen du.

Gehien erabiltzen den metodologia “behaketazkoa” da.

Umearen egokitasuna eskolan

Umea eskolara iristen denean hainbat gauza ezberdin nabarmenduko ditu: toki berria, ez duela zerikusirik familiakoarekin, sentsazio berriak, konturatuko da ez dela erdigunea izanen baizik eta beste bat gehiago dela. Askotan gurasoen babesa gehiegizkoa izaten da. Hasiera batean gauza hauek ez du erakarriko haurra.

Horretarako kontutan hartu beharko dira hainbat kontzeptu:

- Eskola zer den, zertarako balio duen, bertan zer egingo duen eta zer aurkituko duen azaldu.
- Pazientzia eduki eta berarekin bat egotea. Horrela, egoera berrira errazago egokituko da amaren babesa emanaz.
- Naturaltasunez jokatu behar da: hizkuntzan (ikusten duzu, ikusi...espresabideekin), berdintasunez jokatu.
- Erakutsi non eseriko den...
- Autonomia eta ordena zer den azaldu.
- Partehartzea sustatu.
- Gauzak argi esatea
- Irakaslearen mezu inplizituak, imitazio bide bat izan behar du beste umeekiko.
- Argitasunez esan behar dira gauzak.
- Beharrezko laguntza eman.
- Komunikazio ona eta erlazio sozial onak sustatu.
- Edozein ume bezala tratatzea eta berarengana jo zer bait adierazteko.
- Beharrezkoa da gelan estimulazioa lortzeko bertan murgiltzea.

ETAPA AURRE ESKOLARRA

Mintzairaren garapena

Orokorrean, haur itsuek eta gaizki ikusten dutenek ez dituzte arazoak mintzairaren garapenean. Hala ere, informazio eskuratzeko orduan zenbait ezberdintasun dituzte. Orokorrean, haur itsuen garapen fonologikoa, lexikoaren jabetzea eta garapen sintaktikoa normalak kontsidera daitezke.

Hala ere, arazoak egoten dira termino deitikoak erabiltzeko orduan, izenordain pertsonal eta edutezko izenordainetan, alegia. Arazoak batez ere, “ni”, “zu”, “nire” eta “zu” izenordainen erabilpenean daude.

Joko sinbolikoa

Egile batzuek haur itsuen lehenengo fikziozko jokoen inguruko atzerapenez hitz egin dute. Hala ere, hau normaltzat jo dezakegu, ezin baitugu espero haur hauek eguneroko egoerak (beraiek ikusi ezin ditzaketanak) haur normalek bezala egitea.

Era berean, esan behar da oso zaila dela 3 urte bete arte behintzat, haur itsuek euren arreta beraiengandik deszentratzea objektu sinbolikoren batean zentratzeko. Hau ezin da era sinple batean azaldu, baina kontuan izan behar dugu jokoek duten sinbolismoa hurrek antzeman ditzaketen antzekotasun bisualetan oinarritzen direla.

ETAPA ESKOLARRA

Orokorrean, haur itsuen garapen intelektualak ez duela arazo larririk esan daiteke, eduki espazial eta figuratiboan izan ezik. Manipulazioa, irudi mentalak eta ezagupen espaziala behar duten operazioetan haur hauek atzerapen nabarmena dutela esan dezakegu, operazio hauek bide konplexu eta alternatiboetatik konpondu behar baitira. Hala ere, haur hauen eskolako integrazioari buruz egin diren ikerketen arabera, intelektualki, geletan integratuak daudela esan daiteke. Gainera, beharrezkoa da eskolak haur hauek dituzten heziketa behar berezietz arduratzea.

Bestalde, esan beharra dago ez dela denbora gehiegi inbertitu haur garapen afektibo eta sozialaren ikerketan.

Ikusmen arazoaren hautematea eskolan

Ikusmen urritasunak dituzten pertsonen portzentaia handi bat eskolan hasi aurretik diagnostikatuak izan dira. Baina bada beste portzentaia bat, eskolan diagnostikatuak izan direnak irakasleengatik.

Kasu hauetan irakasleak paper oso garrantzitsua jokatzen du haurraren heziketa alde batera utzita. Haurrak garatzen dituen ikusmen urritasunarekiko ezaugarri posibleetaz arduratsu egongo da. Jarraian azaltzen diren ezaugarrietatik bat baino gehiago jasaten baditu ikusmen urritasunen bat izan dezakeenaren susmagarri izan daiteke:

- Begiak gehiegi igurtzi.
- Irakurtzeko begi bat estali.
- Argitasunarekiko sentsibilitatea edo sentikortasuna.
- Irakurtzeko gehiegi gerturatu edo urrundu.
- Begiak okertu, kliska egin (parpadear), kopeta ilundu (fruncir el ceño) edo keinu arraroak egin irakurtzerakoan.
- Buruko eta begiko minaz kexatu, zorabio edo eta goragalea izan irakurtzen egon ondoren.
- Arbelean idatzita dagoena irakurtzeko zailtasuna izan, nahiz eta ilara berdineko ikaskideak irakurtzeko arazorik ez izan.
- Hizkiak, silabak... nahasteko joera (o, a; c, e; n, m; h, n; f, t...)
- Idazterakoan lerrotik asko urrundu.
- Begiak gorrituta izan.
- Begietan edo inguruan zauriak izan.

- Malko asko izan.

Hala ere, ikusmenaren garapena ona den edo ez eta arazoren bat izatekotan diagnosi azkar bat izateko, gomendagarria da haurra espezialistarengana (oftalmologoarengana) uretan behin joatea.

Irakaslearen edozein kezka gurasoei jakinarazi behar die ahalik eta azkarren.

Diagnostiko psiko-pedagogikoa

Diagnosi honek informazioa biltzea dakar bere baitan. Horretarako, teknika eta instrumentu egoki batzuk erabiliko dira. Haurra ebaluatzeko kontuan hartu beharreko puntu batzuk aztertuko ditugu orain:

- a. Haurraren bizi-egoera: osasuna, elikadura, familiaren balore eta jokabideak eta kultura maila.
- b. Aurretiako garapena: gurasoen garapenean arazoren bat (garapen fisikoan, mentala eta emozionalean, mugatze fisikoak...)
- c. Kanpo eragileak: orientatzaileen orientazio filosofikoa, eta eskola eta familiaren arteko elkarlana, umearen ebaluazio egoerak hauengatik kondizionatua egon liteke eta.
- d. Jokabidearen eta portaeraren interpretazioa.
- e. Jokabideen iragarpena eskolan eta etxeko egoeran.

Aholkuak

- Ikusmena ez da gastatzen den zerbait, erabiltzen den heinean hobetzen baita.
- Zenbat eta gazteagoa izan, ikusmena hobetzeko aukera gehiago daude.
- Ikusmen urritasuna duten haurrak beren ikusmena estimulatzea behar dute, nahiz eta objektuak ikusi ahal ez izan.
- Ikusmen urritasuna duten haurrak ikusten duten pertsonak bezala tratatu behar ditugu. Haurrari lagundu egin behar zaio ikusten duen pertsona bat bezala jokatzeko eta izaten.
- Objektuekin ikusmena izaten lana egiten lagundu behar zaio haurrari, kontaktu bisuala.
- Eskolako patioa, heziketa fisikoaren gela,... espazioak miatzearen estimulatzea. Esan behar da ez dela haurra gainbabeatu behar.
- Paper txuri eta beltzak ikusmen eta kontraste hobekoak dira.
- Betaurrekoak eta, lupak... ikusmen normala ezin duten haurrentzako egokiak dira.

5.-TRATAMENDUA

Urritasun bisualak dituzten aurrekin klasean tratamendu bat egiteko hainbat puntu izan behar dira kontuan:

- Informazioa entzumen eta ukimenetik iristen da batez ere.
- Hainbat fenomeno ikuskatzeko zailtasunak izan edo eta imitatzeak.
- Ohiturak barneratzean zailtasunak.
- Orientazio eta ezagutzaren perspektiba falta.
- Informazio biltzearen eta landutakoa laburtzeko moteltasuna.

Printzipio basikoak

Atal honetan, Braille metodoa aztertuko dugu zertxobait. Metodo honi esker haurrak bere ikaskideak jarraitu ahal izango ditu. Sistema honek zailtasun bat gehiturik dauka eta hau irakurtzearen eta idaztearen arteko simetria da, baina arazo hau Perkins-en sistemarekin konpon daiteke. Gainera teknologia berriek asko laguntzen dute, hala nola, ahoko ordenagailuak. Hala ere, oraindik ere matematika arloan adibidez, zailtasunak dituzte, hainbat gauza abstraktu ezin ditzaketenez barneratu.

Mugikortasunari dagokionez, orientazioarekin oso erlazionatua dago

PRAKTIKA ONERAKO PAUSUAK

Ikusmen urritasun larriak dituzten pertsonekin praktika onerako pausuak.

“Ikusi duzu”, “ikusi nahi duzu”... bezalako espresioak **erabiltzeko beldurra kendu**.

Ikusmen urritasuna duen pertsona batekin gaudenean eta bakarrik utzi behar dugunean abisatu egin behar zaio, ez baita oso atsegina **bakarrik hitz egiten geratzea**. -Ez zaie asmakizunetara jolastea gustatzen. Pertsona itsu bat edo ikusmen urritasuna duna dagoen lekuren batera iristean ez erabili **“badakizu nor naizen”** bezala espresiorik. Agurtu egin behar da eta nor zaren esan.

-Ez da suposatu behar ikusmen urritasuna duen pertsona batek beti laguntza behar duenik gauzak egiteko orduan. Beraz, lagundu aurretik galdetu egin beharko diogu laguntzarik behar duen ala ez.

-Ikusmen urritasuna duen pertsona bati errepide igarotzen **laguntzen badugu**, non utzi dugun esan behar zaio, kalearen izena emanaz eta bertan zerbait deigarririk dagoen esanaz.

-Ikusmen urritasuna duen pertsona batek ondo entzuten eta hitz egiten du, beraz **ez da beharrezkoa garrasi egitea eta bere ordeaz erantzutea**.

-Ikusmen urritasuna duen pertsona bati **aurkeztean** edo eta hirugarren pertsona bat aurkeztean, aurkezpen hori nola gauzatuko den esan behar da, eskua emanaz, etc.

-Ordena beharrezkoa da ikusmen urritasuna duen pertsona batentzat. Ez dira objektuak lekuz aldatu behar aurretik esan gabe.

-Pasatzeko lekuetan **ez dira oztopa dezaketen objektuak utzi behar**.

-Ikusmen urritasuna duen pertsona batekin zoazenean, **utz iezaiozu berari heltzen** (ukalondoan), informazio gehiago jasoko du bideak izan ditzakeen oztopoei buruz.

-Leku estu batetik igaro behar baduzu ikusmen urritasuna duen pertsona batekin, eraman ezazu bere besoa zure gorputzaren atzealdean, bere zeure atzean jar dadin.

-Objektuen kolokazioa zein den adierazteko ez duzu “hemen”, “han”, bezalako espresioak erabili behar, “zure aurrean”, Zure ondoan”... bezalakoak baizik.

-Ikusmen urritasuna duen pertsona bat **arrisku batetara gerturatzen ari dela** ikustean ez iezaiozu urrutitik garrasirik egin, hobe da gerturatzea, berehalako arriskua ez den bitartean.

-Ate eta leihoak itxirik edo zabalik egon behar dute bere osotasunean, baita armairuak ere.

-Platerean janariaren lekua adierazteko, hau ordularia balitz bezala erabili behar da. (adib. Platerak 12h patata frijituak ditu eta 6h haragia).

-Edariren bat ematen badiozu esan egin behar zaio, konturatzen ez baldin bada berak berriro hartuko du eta.

-Interesgarria da **objektu berriren bat** erakustean, hitzez deskribatzeaz gain, berak ukitu dezan posible den bakoitzean.